

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**341/2021 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa. Behin betiko onestea L01, L02, L03, L04, L06, L07, L08, L09, L12, L13, L14, L15, L16 muga lerroen mugaketa lanak, Donemiliagako udalerriko kontzejuen mugaketa espedientean adostuak**

Martxoaren 14ko 58/2017 Foru Aginduaren bidez, hau xedatu zen: "Lehenengoa. Behin-behineko onespena ematea Donemiliagako udalerriko kontzeju hauetako mugaketa espedientean adostutako muga lerroei: Adana, Axpuru, Bikuña, Egiraz, Galarreta, Luzuriaga, Mezkia, Munain, Narbaxa, Erdoña, Txintxetru, Uribarri Jauregi eta Zuhatzu Donemiliaga.

L.01 lerroa. Luzuriaga-Zuhatzu Donemiliaga, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.02 lerroa. Luzuriaga-Erdoña, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.03 lerroa. Galarreta-Luzuriaga, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.04 lerroa. Galarreta-Erdoña, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.06 lerroa. Axpuru-Narbaxa, 2013ko irailaren 17ko akta.

L.07 lerroa. Bikuña-Munain, 2013ko urriaren 1eko akta.

L.08 lerroa. Bikuña-Mezkia, 2013ko urriaren 1eko akta.

L.9 lerroa. Mezkia-Munain, 2013ko urriaren 1eko akta.

L.12 lerroa. Bikuña-Egiraz, 2014ko maiatzaren 19ko akta.

L.13 lerroa. Egiraz-Mezkia, 2014ko maiatzaren 19ko akta.

L.14 lerroa. Adana-Txintxetru, 2014ko azaroaren 20ko akta.

L.15 lerroa. Adana-Uribarri Jauregi, 2014ko azaroaren 20ko akta.

L.16 lerroa. Txintxetru-Uribarri Jauregi, 2014ko azaroaren 20ko akta.

Ebazpen hori betez eta otsailaren 21eko 4/2011 Foru Aginduaren 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, mugarriak ipini ziren eta Lurralde Informazio Ataleko teknikariek nahitaez egin beharreko txostenak egin zituzten, non behin betiko ezarri baitziren trazadura zehaztasunez islatzen duten koordinatuak eta muga lerroen adierazpen grafikoa duen dokumentazio teknikoa.

2021eko azaroaren 8an erakunde interesdunei helarazi zitzaizen dokumentazio hori, eta 15 eguneko epea ezarri zen mugarriak ipintzean koordinatu onetsietan izan zitezkeen akatsei buruz egoki zeritzeten alegazioak egiteko, hori guztia otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako jarritako epea igaro da eta ez da jaso alegaziorik.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehena. Ingurumen eta Hirigintza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak xedatzen duenaren arabera (harekin lotuta daude: batetik, AFAREN Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ezartzen duena, eta, bestetik, Arabako Lurralde Historikoko Toki erakundearen Mugak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauak 56. artikuluan ezartzen duena), Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak dauka udalerririk aintzatesteko espedienteak behin betiko onesteko eskumena.

Bigarrena. Mugaketa legeak udalerrri nahiz kontzejuei ematen dien defentsa baliabide bat da, haiek beren eskumenak baliatzeko eremuaren mugak edo mugaldeak ziurtatzeko, eta eskubide hori otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren babesean gauzatzen da, zeinak Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen baititu.

Hirugarrena. Prozedurari dagokionez, 4/2011 Foru Arauaren 59. artikuluan ezarrita dago udal erakundeentzat araututakoa aplikagarria izango dela kontzejuentzat ere, eta lehenengo puntuan gaineratzen du kontzejuen dermioak mugatzeko eskubidea kontzejuei berei dagokiela, baina udalerriek ere eska dezaketela, haien udalerriko kontzejuen mugaketa egiteko eskubidearen titularrak izaki.

Eragindako erakundeek lurralde esparruak zehazteko, 4/2011 Foru Arauaren 32. artikuluan eta hurrengoetan araututako prozedurari jarraitu zaio, eta han xedatutako betekizun guztiak bete dira.

Laugarrena. Txosten teknikoa helarazi zaio Donemiliagako udalari, baita administrazio batzar interesdunei ere, eta harekin batera hauek bidali dira: Arabako Foru Aldundiaren kartografia ofizialaren gaineko muga lerroaren adierazpen grafikoa, mugarrien aipamenak eta lerro horietako bakoitzari dagokion akta. Horri dagokionez, ez da alegaziorik izan, eta ondorioz, egokia da Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularrak egindako onarpen eragiketa behin betiko onestea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Donemiliagako udalerriko kontzeju hauetako mugaketa espedientean adostutako muga lerroen mugaketa lanak: Adana, Axpuru, Bikuña, Egiraz, Galarreta, Luzuriaga, Mezki, Munain, Narbaxa, Erdoña, Txintxetru, Uribarri Jauregi eta Zuhatzu Donemiliaga.

L.01 lerroa. Luzuriaga-Zuhatzu Donemiliaga, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.02 lerroa. Luzuriaga-Erdoña, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.03 lerroa. Galarreta-Luzuriaga, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.04 lerroa. Galarreta-Erdoña, 2013ko irailaren 11ko akta.

L.06 lerroa. Axpuru-Narbaxa, 2013ko irailaren 17ko akta.

L.07 lerroa. Bikuña-Munain, 2013ko urriaren 1eko akta.

L.08 lerroa. Bikuña-Mezki, 2013ko urriaren 1eko akta.

L.9 lerroa. Mezki-Munain, 2013ko urriaren 1eko akta.

L.12 lerroa. Bikuña-Egiraz, 2014ko maiatzaren 19ko akta.

L.13 lerroa. Egiraz-Mezki, 2014ko maiatzaren 19ko akta.

L.14 lerroa. Adana-Txintxetru, 2014ko azaroaren 20ko akta.

L.15 lerroa. Adana-Uribarri Jauregi, 2014ko azaroaren 20ko akta.

L.16 lerroa. Txintxetru-Uribarri Jauregi, 2014ko azaroaren 20ko akta.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitara ematea, eta, berarekin batera, muga lerroen mugak zehaztatzaileen kokapenak, indarrean dagoen UTM ETRS89 sistemako koordinatuen bidezkoak.

Hirugarrena. Ebazpen hau jakitera ematea erakunde interesdunei eta gaia dela eta eskumena duten administrazio publiko eta organismoiei.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabete biko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 25.1., 8.1. eta 46.1. artikuluetan xedatutakoaren arabera; aukera dago, halaber, egintza eman duen organoaren beraren aurrean berraztertzeko errekurtsioa aurkezteko, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabete epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsio ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 21a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
JOSEAN GALERA CARRILLO

### I. ERANSKINA

“DONEMILIAGAKO UDALERRIKO KONTZEJUEN L01, L02, L03, L04, L06,  
L07, L08, L09, L12, L13, L14, L15, L16 MUGA LERROEN MUGAKETA”

#### 01 LERROA LUZURIAGA/ZUHATZU DONEMILIAGA

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	547939,16	4747859,36	724,20	Mugarria	
M2	548233,10	4747426,89	708,98	Mugarria	zuzena
M3	548425,03	4747314,44	700,04	Mugarria	zuzena
M4	548865,10	4747061,06	633,62	Mugarria	Zuzena
M5/M3T	549343,80	4746965,54	632,84	Mugarria	Zuzena

#### 02 LERROA LUZURIAGA/ERDOÑA

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	550788,14	4748186,40	656,13	Mugarria	
M2	550503,87	4747887,27	647,07	Mugarria	Zuzena
M3	550430,80	4747870,93	647,61	Mugarria	Zuzena
M4	550298,19	4747813,76	646,54	Mugarria	Zuzena
M5	549991,23	4747630,70	635,22	Mugarria	Zuzena
M6	549936,33	4747502,23	634,81	Mugarria	Zuzena
M7/M3T	549942,25	4747516,08	632,47	Mugarria	Zuzena

#### 03 LERROA LUZURIAGA/GALARRETA

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	550788,14	4748186,40	656,13	Mugarria	
M2/M3T	550903,45	4748754,93	660,93	Mugarria	Zuzena

#### 04 LERROA: ERDOÑA/GALARRETA

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	550788,14	4748186,40	656,13	Mugarria	
M2	550987,63	4748223,76	660,16	Mugarria	Zuzena
M3	551054,65	4748230,59	670,10	Mugarria	Zuzena
M4	551276,22	4748153,89	676,13	Mugarria	Zuzena
M5/M3T	551467,54	4748066,26	677,40	Mugarria	Zuzena

## 06. LERROA. AXPURU/NARBAXA

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1	546226,40 COTA	4756329,12	1166,90	Mugarria	
M1AUX	546218,97	4756291,39	1166,89	Mugarria	
M2	546186,70	4756127,59	1127,77	Mugarria	Zuzena
M3	546143,25	4755948,99	1075,77	Mugarria	Zuzena
M4	546099,63	4755827,51	1059,28	Mugarria	Zuzena
M5	546064,37	4755726,05	1059,26	Mugarria	Zuzena
M6	546058,20	4755572,17	1047,32	Mugarria	Zuzena
M7	546058,40	4755487,68	1033,40	Mugarria	Zuzena
M8	546060,43	4755269,79	1008,21	Mugarria	Zuzena
M9	546066,03	4755011,93	988,71	Mugarria	Zuzena
M10	546070,98	4754864,34	982,92	Mugarria	Zuzena
M11	546077,82	4754783,48	972,28	Mugarria	Zuzena
M12	546076,86	4754645,64	946,76	Mugarria	Zuzena
M13	546061,02	4754221,99	846,52	Mugarria	Zuzena
M14	546066,23	4754016,28	797,00	Mugarria	Zuzena
M15	546029,19	4753830,97	762,77	Mugarria	Zuzena
M16	546009,67	4753718,28	730,62	Mugarria	Zuzena
M17	546049,47	4753530,23	703,25	Mugarria	Zuzena
M18	546044,77	4753360,30	687,15	Mugarria	Zuzena
M19	546043,01	4753157,99	678,21	Mugarria	Zuzena
M20	546045,41	4752954,21	663,93	Mugarria	Zuzena
M21	546050,88	4752589,95	649,41	Mugarria	Zuzena
M22	546049,85	4752399,97	652,35	Mugarria	Zuzena
M23	546037,65	4752129,08	645,16	Mugarria	Zuzena
M24	546020,81	4751728,72	638,29	Mugarria	Zuzena
M25	545964,80	4751349,04	631,26	Mugarria	Zuzena
M26	546025,14	4751069,15	659,45	Mugarria	Zuzena
M27	546032,96	4750875,86	671,70	Mugarria	Zuzena
M28	546033,66	4750874,83	670,86	Mugarria	Zuzena
M29	546058,68	4750594,11	624,76	Mugarria	Zuzena

## 07 LERROA BIKUÑA/MUNAIN

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	555.477,54	4.741.881,77	1.116,78		
M2	555392,66	4741968,08	1062,35	Gurutzea	Zuzena
M3	555175,47	4742188,91	1002,80	Mugarria	Zuzena
M4	555167,66	4742262,71	974,20	Mugarria	Zuzena
M5	554972,85	4742435,00	963,50	Mugarria	Zuzena
M6	554872,42	4742546,93	936,36	Mugarria	Zuzena
M7	554739,09	4742738,37	880,02	Mugarria	Zuzena
M8	554487,61	4743000,99	831,10	Mugarria	Zuzena
M9	554152,77	4743278,65	800,22	Mugarria	Zuzena
M10	554050,60	4743369,59	785,81	Mugarria	Zuzena
M11	553998,65	4743416,98	778,73	Mugarria	Zuzena
M12	553999,16	4743430,85	777,79	Mugarria	Zuzena
M13	553893,25	4743586,43	755,93	Mugarria	Zuzena
M14	553783,60	4743808,75	728,63	Mugarria	Zuzena
M15	553707,11	4743958,98	696,18	Mugarria	Zuzena
M16	553539,66	4744048,83	689,16	Mugarria	Zuzena

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M17	553310,64	4744210,24	680,76	Mugarria	Zuzena
M18	553254,37	4744307,50	680,08	Mugarria	Zuzena
M19	553278,97	4744484,17	680,52	Mugarria	Zuzena
M20/M3TJ	553229,21	4744666,33	689,81	Mugarria	Zuzena

## 08 LERROA BIKUÑA/MEZKIA

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	553229,21	4744666,33	689,81	Mugarria	
M2	553306,51	4744906,58	678,39	Mugarria	Zuzena
M3/M3T	553651,53	4745255,65	679,93	Mugarria	Zuzena

## 09 LERROA MEZKIA/MUNAIN

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	553229,21	4744666,33	689,81	Mugarria	
M2	552989,37	4744729,46	691,85	Mugarria	Zuzena
M3	552866,84	4744771,38	691,41	Mugarria	Zuzena
M4	552749,95	4744810,36	689,92	Mugarria	Zuzena
M5	552610,68	4744860,70	637,94	Mugarria	Zuzena

## 12 LERROA BIKUÑA/EGIRAZ

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	556253,46	4.742.021,73	1.111,46		
M1Aux	556249,19	4742033,56	1093,98	Puntuak	
M2	556136,31	4742346,56	1020,56	Gurutzea haitzean	Zuzena
M3	555867,98	4742614,44	1000,87	Gurutzea haitzean	Zuzena
M4	555635,12	4742963,14	928,27	Gurutzea haitzean	Zuzena
M5	555367,01	4743148,38	904,85	Gurutzea haitzean	Zuzena
M6	555232,38	4743408,38	859,61	Gurutzea haitzean	Zuzena
M7	555168,21	4743866,87	787,69	Gurutzea haitzean	Zuzena
M8	555270,99	4744312,16	805,41	Harria	Zuzena
M9	554957,83	4744477,03	763,77	Mugarria	Zuzena
M10	554885,68	4744499,66	752,98	Mugarria	Zuzena
M11	554780,28	4744596,37	736,72	Harria	Zuzena
M12	554646,09	4744782,73	688,38	Harria	Zuzena
M13	554449,64	4745123,23	667,64	Mugarria	Zuzena
M14	554448,17	4745236,47	665,20	Mugarria	Zuzena
M15	554330,40	4745326,83	664,82	Mugarria	Zuzena
M16	554184,36	4745265,35	666,25	Harria	Zuzena
M17	553759,35	4745341,97	673,85	Mugarria	Zuzena
M18	553681,78	4745223,81	680,70	Mugarria	Zuzena
M19/M3T	553651,53	4745255,65	679,93	Mugarria	Zuzena

## 13. LERROA EGIRAZ/MEZKIA

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
M1/M3T	553651,53	4745255,65	679,93	Harria	
M2	553573,45	4745604,81	661,53	Harria	Zuzena
M3	553529,66	4745869,36	658,86	Mugarria	Zuzena
M4	553432,25	4746354,06	651,32	Harria	Zuzena
M5/M3T	553531,19	4746696,82	596,72	Harria	Zuzena

## 14. LERROA ADANA/TXINTXETRU

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
J1/M3T	543234,75	4742063,40	690,42	Mugarria	
J2	543408,57	4741983,21	687,36	Mugarria	Zuzena
	543511,25	4741959,64	695	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
	543585,76	4741966,65	700	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
	543710,22	4741933,30	701	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
	543799,85	4741913,43	700	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
	544059,51	4741865,19	695	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
	544114,39	4741843,54	690	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
	544176,11	4741815,50	685	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
	544211,62	4741783,82	680	Puntuak	Isurialdeen banalerroa
J3	544291,14	4741688,38	670,25	Mugarria	Banalerroa
J4/M3T	544439,78	4741677,73	668,73	Mugarria	Zuzena

## 15 LERROA ADANA/URIBARRI JAUREGI

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
J1/M3T	544439,78	4741677,73	668,73	Mugarria	
J2	544328,76	4741341,22	676,79	Mugarria	Zuzena
J3AUX	544055,89	4741044,28	680,27	Puntuak	Zuzena
J3/M3T	544055,79	4741038,81	680,42	Mugarria	

## 16 LERROA TXITXETRU/URIBARRI JAUREGI

MUGARRIA	X (ETRS89)	Y (ETRS89)	Z_ELIPSOIDALA	MOTA	LOTURA
J1/M3T	544439,78	4741677,73	668,73	Mugarria	
J2	544700,42	4741674,75	672,20	Mugarria	Zuzena
J3/M3T	545155,70	4741632,32	623,70	Mugarria	Zuzena